



Jorge Villari hilabete batzuk bakarrik falta zaizkio bere begien ondotik mende bat igaro dela esateko. Jacoba Apezetxeak igaro zuen hiru zenbakien muga. Hernaniko bizilagun hauek beraien bizi esperientzia azaleratu digute, gertakariez blai dagoen ibilbide batean.

MENDE bateko bidea

NAGORE OLCOZ ALDAREGIA

gaur egun Hernaniko Orkolaga auzoan bizi da, baina jaio, Zinko Eneako etxeak jaiotzen ikusi zuen 1899ko azaroaren 2an. Bere etxera joateko gelditu nintzen, bere alaba Sabinarekin telefonoz hitz egin eta gero. Jorge oso ondo zegoela esan zidan eta elkarriketa bat mantentzeko arazorik ez zegoela, alegia. Etxeko atea zabaldu didanean, sukaldean norbait ikusi dut egunkaria irakurtzen, eta hura bai sorpresa, Jorge berbera baitut mutur aurrean. Nire baitan pentsatu dut, 99 urte eta betaurrekorik gabe irakurtzen ari da... eta gainera arrazoitzeko izugarritzko gaitasuna aurkezten du. Askok gazte izanda ere nahi genukeena.


Baina bere bizitzak gora-behera handiak jasan ditu, une latzak, hobeak, eta gauza guztien

gainetik, gogor lan egin behar izan du.

Bederatzi urterekin hasi zen Florida auzoko Fundizioan lan egiten, pintxe bezala. Baina Lehenengo Mundu Gerrak eztanda egin zuen eta Beasainera joan zen era berean pintxe modura lanean. Eta azkenik Pasaia. 1918 urte inguruan ama gaixotu zela eta, mesedez eskatu omen zion Hernanira itzuli zedin. Hala egin zuen, amari gustu ematearren.

Lehen Guda garaian, Jorgek genero guztia Frantziara eramaten zutela oroitzen du. Arroza, patatak, haragia... Goizuetatik ganadua Frantzia aldera pasatzen zutena esaten digu. Ondorioz, jateko oso gauza gutxi zegoen eta zegona, garestia. Egoera zertxobait konpondu zenean, guda amaitu ostean, prezioak poliki merketu ziren.

JORGE VILLAREK
HERNANIN EGIN DITU BERE
99 URTEAK.



JORGE
VILLAR
AGUAZILA
IZAN
ZEN
ZEN
GARAETAN.



.Eta 1926 urtean Domiciana Zabalorekin ezkondu egin zen. Honekin hiru seme alaba izan zituen: Sabina, Pepita eta Jose Julian.

Guda bat igaro eta konturatu baino lehen garai bortitzak zetozkien. Espainiar Guda Zibila izan zela eta, Lehen Mundu Gerran gertatukoaren antzekoa ematen hasi zen; eta honi janari errazionamenduak eta eskasia gehitu behar zitzaizkion. Arazoa kasu honetan genero falta garbia zen, hau da, dirua bazeukaten baina jatekorik ez. Fundizion lanean zegoenean Francoren altxamenduaren berri jaso zuen. Jendea atxilotu eta erahiltzen ari zirelaren zurrumuruak somatzen ziren. Askok alde egin zuten, bere anai batek eta ilobak, besteak beste. Jorge Hernanin gelditu zen eta Romero Koronelaren aurrean aurkezteko ordena eman zuten. Honek bere izena galdetuta, bere anaia non ote zegoen itaundu zion. Anaia itzultzeko gutun bat idatzi ziezaion eskatu zion, eta gaur ez inori aterik ez zabaltzekoarena.

Gerra bukatu zenean, 1947an Jorgek Fundizioa utzi eta Hernaniko Udaletxean hasi zen lanean. Hasiera batean sereno bezala eta beranduago aguazila izan zen. Dirudienez, urte haietan aguazilaren lana, etxez etxe zergak eta kuotak kobratzea zen. Hori bai, bere hitzetan, "oinez eta ez orain bezala dena kotxez egiten dutela". Argindarra eta uraren kuotak jasotzen zituen egun haietan Hernaniko biztanleen etxetatik. Kontutan hartu behar da orduan gure herriak apenas zazpi mila biztanle izango zituela, hots, gaur eguneko erdia baina gutxiago.

Oroitzen da etxe guztien ateak beti zabalik zeudela eta bizilagunen artean familia handi bat osatzen zutela. Are gehiago, ateak ez zituzten ez gaur eta ez kanpora joaten baziren ere ixten.

Aguazil lan honetan trafikoa ere kontrolatu behar zuen. Jorgek dionez, hasieran trafikoa ez zen gehiegi somatzen, baina Zinko Eneako etxea



bota zutenean, orduan hasi ziren kotxeak barra barra agertzen. Antza denez, lehenago ganadua besterik ez zen kaletik ibiltzen, izan ere ikuilu asko baitzegoen kalean bertan. Baina ordenu baten bitartez, animaliak edukitzea erabat debekatu zuten, eta askok beraien abereak saldu behar izan zituzten.

Aurrerapenak heldu ziren nolabait Jorge eta bere familiaren etxera. Honela, bere lehenengo irratia erosi zuen eguna ederki gogoratzen du. Donostiara joan omen ziren eta, Jorgek esanda, sekula ez zuten arropa onik jantzi, nahiko pobreak izan baitziren. Baina Donostiara abiatu ziren eta denda batean sartu ahala, Jorgek begia bota zion apal bateko irratia bati. Hura dendariari jaisteko eskatu zion, baina hark Jorgeren itxura ikusita beste irratia modelo batzuk atera zizkion. Hala eta guztiz ere, Jorgek saiakera berria egin zuen, irratia hura lehen momentutik gustatu zitzaion eta dendariak oso garestia zena

adierazi zion. Hura nahi zuela eta biltzeko eskatu zion.

Dendaria zeharo harrituta utzi zuen, izan ere irratia hark lau mila pezeta balio baitzuen. Etxean apal batean ipini zuten eta egunero konpainia eskaintzen zien. Jorgek bereziki garai hartan ipintzen zuten musika goraipatzen du, dionez, oso ona eta klasikoa, bai goizez eta gaeuz. Ostera arratsaldean irratia nobelak entzuten zituzten denak elkartuta.

1970ean jubilatuta zen Jorge Villar. Orduztik meriendatzera joaten zen lagunekin Santa Barbara soziedadera. Eta gaur egun lasai bizi da, irakurzale amorratua den gizon hau. Berak esanda, beti izan du afizio handia liburuekin. Donostiara joaten ziren elaberriak erostera, edota askotan opari gisa jasotzen zituen. Lagun batzuek aspertzen direla esaten diote, baina Jorge ez da ez aspertzen. Bost generazio ikusten ditu eta osasuntsu eta pakean bizi da. Harro egoteko modukoa, bai horixe.

■ Jacoba Apezetxeak mendea jada igaro du. Bere bizkarrean 101 urteren zama darama, eta uztaillean 102 beteko ditu. Zer moduz dagoen galdetzen diodanean, ondo dagoela erantzuten dit une oro bere ezpainetan irrifarra eskainiz.

Nahiz eta bizitza gogorra jasan, Jacobak jakin du bere bederatzi seme alaba aurrera ateratzen. Oiartzunen jaio arren, Jacoba hamaika urterekin Goizuetara joan zen bizitzera. Hala ere, oraindik biziki gogoratzen ditu Oiartzunen eskolan pasa zituen momentuak. "Komunioa egiteko Dotrina ikasi behar genuen eta horretarako eskolara joaten ginen".

Kartoi handi batzuen bitartez neurri desberdinetako letrak izaten zituzten eta modu honen bidez irakurtzen eta idazten ikasten zuten. Ezinbestekoa zen, noski, gero dotrina ikasi ahal izateko. Eskola

OIARTZUNEN JAIOA, GOIZUETAN HAZIA ETA 21 URTEREkin HERNANIRA EZKONDU ZEN EMAKUME HONEK BEDERATZI SEME ALABEN AMA DA.



mistoak izaten ziren eta letrak ikasi eta gero liburu batzuk ematen zizkieten.

Baina, esan bezala, hamaika urte zituela Goizueta aldera abiatu zen. Gaztetan gogoratzen da Hijas de María kongregazioan parte hartzen zuela eta oso erlijiosak zirela, gaur egun bezala.

Dantzaldietan aritzen ziren neskek ezin zuten kongregazioan parte hartu. Jacobak esaten duenez "Guk bakarrik begiratu egiten genuen, gainera ilundu baino lehen etxean egon behar genuen".

Eta kongregazioaz gain, baserrian lanean aritzen zen. Behiak bazituzten, oiloak, txerria eta baratza. Beraiek landutako gauzak jaten zituzten, baina era berean askotan besteak beste arrautzak saldu egiten zituzten, batez ere Guda Zibila garaian. Orduan arruntena trukea egitea bazen ere, une latzetan diruaren premia ere somatu zuten.

Hogeita bat urterekin Cornelio Arozenarekin ezkondu zen, baserrian bertan ezagutu zuenean. Elkarrekin bederatzi seme alaba izan zituzten. Gainera, Jacoba oso gazte alargun gelditu zen -bere senarra meategian lanean ibiltzen zen eta silikosiaren gaitza harrapatu zuen-. Lehenengo haurra erditzeko



medikuaren laguntza izan zuen, beste baserriko emakume batek begiratzen jardun zuen bitartean. Hortik aurrera medikuak baimena ematen bazion emakume horri, beste haur batzuek jaiotzen lagun zezakeen. Eta hala izan zen. Jacobaren ondorengo seme alabek, inguruko baserriko lagunak laguntza izan zuten mundua lehen aldiz ikusteko.

Aipatu bezala, gerra garaia gogorra izan zen. Hala ere baserrian bizi zirenek erraztasun handiagoak zituzten janariari begira, adibidez. Herrietako jendea kexatu egiten zen jatekorik ez zutelako eta maiz joaten ziren baserrietara irina eske. Hauek ematen zieten baina Jacobak esanda, egun txar haietan irina giltzapean gordetzen zen eta ezin zuten talorik egin.

Beste maila batean, esan beharra dago Jacobaren seme den Xanti, hemezortzi urterekin gerrara Salamancara joan zela, eta beso bat galdu zuen guztira sei urte pasa eta gero.

Baserrian lanean aritzen zen familia osoa, gurasoak eta seme-alabak, eta ereindakoa eurek jaten zuten. Baina Jacobak gogoratzen du askotan elurteak izaten zirela, ondorioz, ezinezkoa zen lurretik zerbait ateratzea. Horregatik bere senarra joaten zen enkargutara, eta askotan alpargatak jantzita.

Batzuetan, baserritik oinutsik jaisten zen herrira, eta bide dexente luzea omen zeukaten. Kalera iritsi eta han alpargatak jantzi egiten zituzten, edo eskarpinak, Jacobak esaten duen moduan.

Izan ere, zapatak edukitzea lujo bat zen beraientzat. Edukitzekotan, elizara joateko izaten ziren edota komunioa egiteko. Jacobak dioenez, berarentzat oso garrantzitsua zen bere seme-alabek komunioa egitea. Horregatik bidali zituen eskolara. Eta hain egun garrantzitsua zenez, jantziek primeran egon behar zuten. Bere seme-alabek komunioan eraman zituzten arropak, beraz, berriak izaten ziren, jostunak egindakoa.

Jacobak, Jaungoikoari ematen dizkio eskerrak osasunez eta alai bizi delako. Ehun eta bat urte izan arren, azkenaldi honetan, zahartzen ari dela esaten hasi da. Birlobak, berilobak eta beste familiako kideez inguratua bizi da gaur egun Jacoba Ereñozuko auzoan. Emakume hau ikustea besterik ez dugu behar xamurtasunaren adibide dela ulertzeko. Bai Jorge Villarrekek eta bai Jacoba Apezetxeak irakurtzeko zaletasuna amankomunean daukate eta oraindik egunkariari begirada bat botazen diote. Hori ote da beraien bizi luzearen sekretua? Ezin dugu jakin. Dena den, txapela kentzeko modukoak dira. Benetan mundialak. ♦



BOST BELAUNALDI
BILDU DITU BERE
INGURUAN 102 URTE
BETETZERA DOAN
EMAKUME LIRAIN
HONEN.